

## Osagarrien egoera argitu behar da lehenbailehen

Badirudi osagarrien iazko deialdiaren ebazpenaren gainean berriak daudela. Hala ere, deialdi horretara aurkeztutako irakasle-ikertzaileek ez dute inongo informazio ofizialik jaso eta ez dakite ea jarraitu behar duten beren eskaera berriarekin edo ez.



**LAB eta Steilas sindikatuok behar-beharrezkoa jotzen dugu egoera behingoz argitzea eta eskatzen diogu Unibasqi lehenbailehen esan dezala ea 2017ko deialdiaren ebazpenak emango diren eta noiz helaraziko zaizkien irakasle-ikertzaileei.**